



Gogoeta Haur esklaboen egoera hobetzeko zerbait egiterik banu...


Egoera: Telebistari begira, umeen esplotazioari buruzko irudiak dituzu aurrez aurre: 10-11 urteko haur gerlariak fusila eskuetan, meatzean euro erdi baten truke lanean diharduen 8 urteko mutikoa, etxeko guztien ardura duen 9 urteko neskato alaia, kirol-arropa ospetsua egiten jarduten duten neskatxoak eta mutikotxoak. 8.000.000 haur esklabo omen dago munduan. Horrek zer pentsatua eman dizu...

Eta horretan pentsatzen hasi zara:

- **Zer:** neure baitan egindako **gogoeta**
- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz
- **Baldintza:** abiapuntua izan dadila ondoko esaldia; alegia, hori idazten hasi eta horri eman jarraipena.

Haur esklaboen egoera hobetzeko zerbait egiterik banu...

(150 hitz hemendik aurrera)



Haur esklaboak

Haur esklaboen egoera hobetzeko zerbaít egíteirik banu, nire buruarekín askoz hobeto sentítuko nintzateke dudarik gabe. Egunero, klasetik ateratzerakoan, etxera bueltatu eta gurasoek prestatutako bazkari goxoa daukazu prest, eta, betekadaren ostean, sofa gáinean etzaten zara, merezi duzun síesta egiteko irrikítan zaudelako. Ametsetan zaudela idanik telebístá píztuta geratu da, eta Síriako haur esklaboen inguruko dokumentála hasten da. Zer gertatuko lítzateke síestatík esnatuko bagína?

Ort.

Telebístan haur hauen aurpegiak ikustean, burura datorkídan lehenengo írudia nire lehenengusu txikiéna da. Batzuen eta besteen bízítzak konparatzen hasteak mín egiten du bíhotzean, batez ere ikusíta lehengusuen etxean ez daukazula sartzerik, dítzuten jóstailu píloarekín tokírik ez dagoelako, eta bítar-tean Síriako bost urteko umetxoak berak fabríkatutako panpín bat besterik ez duela.

Lot./Kohs.

Honetaz gáin, zure urtebetetzerako eskatutako zapatíla eder eta garestí horiek norke sortu dítuén ikustean lotsaturík sentítzen zara. Hamar urteko mutíltxo batek, egoera ízugarrí txarrean, zure Nike zapatílak jósi dítu eta 120 euroetatík bí besterik ez dítu eraman. Norke onartuko luke horí gure gízartean?

Lot./Kohs.

Ez da ahaztu behar ere ez gerrarako edo prostituziorako saldu eta erosítako umeen kasua, guztíz pentsaezína íruditzen zaíguna, báina gaur egungo munduan egunero gertatzen dena.

Egit. "ere"

Hau horrela ízaník, eta guztiok aldatu nahí edo behar dugun egoera honen aurrean, gure síestatík esnatu beharra daukagu.

Lot./Kohs.



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK

IDAZLAN

LABURRA (2016ko
2. deialdia-2)

Kalifikazioa: 6

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 3, 5, 9
-: 7, 9, 18**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 2,5

Atazak eskatzen diona ondo bete du. Informazio nahikoa eman du eta gai izan da gaiari eutsi eta hausnarketa burutu eta bere ikuspuntua azaltzeko.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 2

Funtsean testu argia eta ondo egituratua da. Erabili duen moldea originala da, eta mesede baino kalte gehiago egin dio horrek, pasarte bat edo beste nahasiak direlako. Progresio tematikoan egin du huts. Hala ere, egokia da.

ZUZENTASUNA: 1,5

Morfosintasia mailan egin dituen akatsengatik ez du merezi nota altuagorik. Akats horiek batzuetan ilundu egiten dute testua.